

ENKANTEKO OINARRI ETA ARAUAK

- Objektuak eta gauzak ikusgai egongo dira:
 - **2014/12/09** arratsaldeko 16:00etatik **2014/12/20** arratsaldeko 19:30etara Irungo EkoCenter-ean (Auzolan Kalea 44) eta Amarako Ekoshop-ean (Ehunurteurrenaren Plaza 3)
 - **2014/12/09** arratsaldeko 16:00etatik **2014/12/18** arratsaldeko 20:00etara Arrasateko EkoCenter-ean (Bidekurtzeta Kalea 2)
- **ENKANTEAN DAUDEN** objektuak eta gauzak, **ERREFERENTZIA ZENBAKI** batez identifikaturik daudenak izango dira.
- Enkantera ateratzen diren artikuluz guztiek hasiera salneurria etiketan markaturik dute, BEZa barneraturik dutelarik.
- Enkantean parte hartu ahal izateko, **ESKUDIRUTAN FIDANTZA** bat utzi beharko da **hasierako salneurriaren %10eko balioan**, honek erosle posible bezala konpromisoa hartzea inplikatzeko duenak.
- Erosleak erakusketa bitartean, bere kabuz eta puja egin aurretik, artikuluen egoera eta baldintzak egiaztatu beharko ditu ondoren erreklamaziorik egon ez dadin.
- Enkanteko artikuluen artean puja eskaintza bat egin ahal izateko, "PUJA ESKAINTZA TXARTELA" bete beharko da eta Miguel Ángel Sánchez Ferrer Notario Jaun Gailenak ekintza honetarako alde aurretik zigilatu eta itxi duen kutxa batean sartu beharko da.
- Eskaintzailea behar den moduan identifikatu beharko da NAN edo bera araudiz ordezkatuko duen dokumentu bat aurkeztuz.
- Baliogabetuak izango dira hasierako prezioaren azpitik eginiko eskaintzak.

- Objektuak eskaintzarik altuena egin dutenei esleituko zaizkie.
- Zenbateko berdina duen eskaintzarik egonez gero, data eta ordutegiari dagokionez lehenago egin dena izango litzateke irabazlea.
- Kutxaren irekiera ekitaldi publikoan egingo da **2014ko abenduaren 23an, 09:00etan** Pasaiake Notariotzan (Zumalakarregi Etorbidean 12, 1 solairua, Pasai Antxo) Miguel Ángel Sánchez Ferrer Notario Jaun Gailenaren aurrean.
- Irungo eta Arrasateko Ekocenter-etan eta Amarako Ekoshop-ean notario- zerrenda bat erakusgai jarriko da **abenduaren 24ean** 10:00etatik aurrera, bertan esleipendunen NAN zenbakiak eta dagozkien pujak agertuko direlarik. Era berean asteleheneetik ostiralera 8:00etatik 14:00etara **943-367534** telefono zenbakian eta www.emaus.com web orrian informazioa eskuratu ahal izango da.
- Eskaintza irabazleen emaitzak telefono bidez jakinaraziko dira.
- Fidantzak **abenduaren 24tik 2015eko urtarrilaren 7ra bitartean** itzuliko dira, **puja egin zen zentro horretan bertan**.
- Hau burutu ahal izateko, ezinbestekoa izango da NAN edo bera araudiz ordezkatzeko duen dokumentu bat aurkeztea.
- Objektuak Emaúsen esku geratuko dira ordaina egin artean.
- Esleipendunak **abenduaren 24tik 2015eko urtarrilaren 7** bitartean ordaindu eta jaso behar izango ditu esleitutako objektuak. Epe hau pasatu ondoren, esleipendunak enkantean zegoen objektua ordaindu ezean, esleipen **ESKUBIDE GUZTIAK GALDUKO DITU**, objektua hurrengo eskaintzarik altuena egin duen pertsonari pasatuz eta jarritako fidantza galduz.
- Entregatze data ondoren objektuari gerta dakizkiokeen kalteei dagokionez, esleipendunaren **ERANTZUNKIZUNA** izango da.